

2019an Euskal AEko enpresen eta bertako langile okupatuaren kopuruak gora egin du

Euskal AEn diharduten enpresen % 32k bost urte edo gutxiago ditu

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019. urtearen hasieran, hainbat jarduera-sektoretako 157.358 enpresa zeuden; aurreko urtean baino 830 gehiago (% 0,5), Eustaten arabera. Enpresa horiek 174.771 establezimendutan (fabrikak, dendak, bulegoak...) burutzen zituzten euren jarduerak. Establezimendu horiek antzeko proportzioan hazi ziren (% 0,5). Establezimendu horiek honela banatuta daude: % 13,7 Araban, % 50,5 Bizkaian eta % 33,2 Gipuzkoan.

Laugarren urtez jarraian, establezimendu horietan enplegatutako langileen kopuruak gora egin zuen; % 2,4 azken urtean. Jarduera-sektoreen arabera, langileen kopuruak, besteak beste, sektore hauetan egin zuen gora: *Informazioaren eta komunikazioen* sektorean (% 5,8), *Jarduera artistikoen eta beste zerbitzu batzuen* sektorean (% 4,6) eta *Higiezinaren jardueren* sektorean (% 4,5). Aldiz, enplegatutako pertsonen kopuruak honako sektore hauetan bakarrik egin zuen behera: *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza* sektorean (% -1,7), eta *Finantzen eta aseguruaren jardueren* sektorean (% -0,7).

Enplegatuen banaketa ehunekotan eta urte arteko aldakuntza jarduera-adarren arabera. 2019/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Δ%		Δ%		Δ%		Δ%	
Guztira	100,0	2,4	100,0	2,8	100,0	2,6	100,0	1,9
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,3	-1,7	2,3	-3,3	1,1	1,7	1,3	-4,3
Industria, energia eta saneamendua	20,0	1,4	26,4	2,5	15,3	-0,6	24,0	2,8
Eraikuntza	5,7	3,6	4,2	2,2	6,4	3,6	5,5	4,3
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	25,9	1,8	22,7	3,0	26,8	1,9	26,1	1,1
Informazioa eta komunikazioak	2,4	5,8	1,8	10,7	3,1	4,7	1,8	6,2
Finantza jarduerak eta aseguru-entitateak	1,8	-0,7	1,3	-1,7	2,1	0,1	1,6	-1,9
Onibar-jarduerak	0,6	4,5	0,4	11,2	0,6	2,5	0,5	5,9
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	14,7	3,5	12,0	1,9	17,2	3,6	12,3	4,2
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	23,0	2,7	24,9	3,1	22,9	4,2	22,1	0,0
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	4,5	4,6	3,9	7,3	4,6	4,0	4,7	4,2


Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoaren direktorioa

Kopuruari dagokionez, establezimendurik gehien, *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* sektoreak izan zituen, % 36,5; ondoren, *Jarduera profesional eta lagungarriak* (% 16,4) eta *Eraikuntza* (% 11,8) sektoreak azaltzen dira.

Establezimenduen tamainaren arabera, aurreko urtean bezalatsu izan zen. 2.470 establezimenduk —guztien % 1,4— baino ez dituzte batez beste 50 langile edo gehiago enplegatzen. Hala ere, oro har, enplegatutako pertsona guztien % 41i ematen zioten lana. Aldiz, 128.070 establezimendu —guztien ia hiru laurdenak— tamaina

txikikoak (3 langile baino gutxiago) dira, eta bertan, enplegatutako pertsona guztien % 17,2k lan egiten du.

Euskal AEn enplegatuten eta establezimendu kopuruaren banaketa, jardura-adarren arabera. 2019/01/01



Iturria: Eustat. Jardura ekonomikoen direktorioa

Establezimenduen jardura-adar nagusien arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazio handiena *Industria, energia eta saneamenduen* sektorean erregistratu zen. Euskal Autonomia Erkidegoan, oro har, establezimenduko batez besteko tamaina 16 langilekoa da. Lurraldeen artean Araba nabarmentzen da (20,4 langile). Bizkaia 14,1 eta Gipuzkoa 16 langile dituzte establezimendu bakoitzeko.

Sexuaren arabera, 2018an Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona enplegatuen % 43,8 emakumeak ziren, aurreko urteko proportzioa baino pixka bat beherago (% 44,1). Sektore feminizatuenak hauek izan ziren: *Jardura sanitarioa eta Gizarte-zerbitzuak* (% 76,9 emakumeak), *Hezkuntza* (% 67,7), *Beste zerbitzu batzuk* (% 62,5) eta *Ostalaritza* (% 54,9). Aldiz, ondorengo sektoreetan gizonak gehiago dira: *Lehen sektorean* (% 77,2 gizonak), *Industrian* (% 79,8) eta *Eraikuntzan* (% 89,6).

Enplegatuen banaketa ehunekotan Euskal AEn jarduera-adarren (A10) arabera, lurralde eta sexuari jarraiki. 2019/01/01

	C.A. de Euskadi		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Mujeres		Mujeres		Mujeres		Mujeres	
Total	56,2	43,8	57,9	42,1	55,5	44,5	56,5	43,5
Agricultura, ganadería y pesca	77,2	22,8	76,7	23,3	79,7	20,3	74,6	25,4
Industria, energía y saneamiento	79,8	20,2	81,2	18,8	80,1	19,9	78,8	21,2
Construcción	89,6	10,4	89,1	10,9	89,4	10,6	90,2	9,8
Comercio, transporte y hostelería	54,2	45,8	53,4	46,6	55,2	44,8	53,2	46,8
Información y comunicaciones	64,0	36,0	65,4	34,6	63,8	36,2	63,8	36,2
Actividades financieras y seguros	45,3	54,7	45,3	54,7	45,6	54,4	44,8	55,2
Actividades inmobiliarias	51,0	49,0	50,3	49,7	51,7	48,3	50,0	50,0
Actividades profesionales y auxiliares	51,5	48,5	54,3	45,7	51,0	49,0	51,0	49,0
Adm. pública, educación y sanidad	33,8	66,2	34,5	65,5	34,1	65,9	33,0	67,0
Actividades artísticas y otros servicios	44,7	55,3	41,8	58,2	46,2	53,8	43,7	56,3

Fuente: Eustat. Directorio de actividades económicas

ENPRESAK

Enpresen (establezimenduen jardueraren euskarri diren unitate juridikoak) % 97,4k Euskal Autonomia Erkidegoan zuen egoitza; eta 4.091ek Estatuko beste leku batean. 79.454 enpresek, erdiak, Bizkaian zuten egoitza; 52.217k (% 33,1ek) Gipuzkoan; eta 21.596k (% 13,7k) Araban.


Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,8 okupatu enpresako, 5,2 establezimendu bakoitzeko. Nortasun juridikoaren analisian, alabaina, badira alde nabarmenak. Nortasun juridikoaren titularra pertsona fisikoa denean, 1,4 enplegutara heldu ziren, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 12 eta 9,7 pertsonakoak dira, enpresa eta establezimendu bakoitzeko, hurrenez hurren.

ENPRESA DEMOGRAFIA

Enpresen antzinasunari dagokionez, euskal enpresen artean enpresa berri samarrak aurkitzen ditugula azpimarratu behar dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan ari ziren enpresen % 32k bost urte edo gutxiago zituen; eta bi urte edo gutxiagokoak % 15 ziren.

Txandakatzeari dagokionez, establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuz, 2018an zehar 16.472 establezimenduk hasi eta 15.550ek eten egin zuten euren jarduera. Beraz, guztizko saldoa 922 establezimendu gehiagokoa izan zen. Irekitako establezimenduen tasa (sortutako establezimenduen eta stock-ean dauden arteko zatidura) % 9,4koa izan zen eta itxitaen tasa % 8,9koa. Ondorioz, hazkunde garbiko tasa positiboa izan zen (% 0,5), lehen aldiz azken 11 urteetan.

**Establezimenduko jaiotza- eta heriotza-tasak.
Euskal AE 2009-2019 (%)**



Txandakatze handiena *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* arloetan eman da (alta guztien % 25,7 eta baja guztien % 32,7); *Jarduera profesional eta osagarrien* arloan alden % 17,5 eta baje % 17 eman da; eta *Eraikuntza* arloan alden % 17,2 eta baje % 16,9.

Nortasun juridikoaren arabera demografia aztertzean, pertsona fisikoaren formularen bidez sortutako establezimenduetan gertatzen dena azpimarratu behar. Establezimendu horiek alden % 68,6 eta baje % 71,8 eragin zuten.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2019/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	16.472	15.550	Guztira	16.472	15.550
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1.393	856	Pertsona fisikoa	11.307	11.162
Industria, energia eta saneamendua	748	812	Akziokako elkarteak	312	357
Eraikuntza	2.841	2.625	Elkarte mugatua	3.473	2.877
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	4.239	5.089	Bestelako elkarteak	1.295	1.105
Informazioa eta komunikazioak	489	409	Bestelako forma juridikoak	85	49
Finantza jarduerak eta aseguruetoak	368	374			
Onibar-jarduerak	389	326			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.877	2.639			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.796	1.396			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.332	1.024			

Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika

Pertsona enplegatuei dagokienez, pertsona fisikoko forma juridikoa duten establezimenduek establezimendu berrian enplegatutako pertsonen % 43,1 hartu zuten eta desagertutako establezimendutan enplegatutako pertsonen % 47,9. Sozietate mugatuak ere nabarmentzen dira, alta emandako establezimendutan enplegatutako pertsonen % 31,7rekin eta baja emandako establezimenduen % 30,4rekin.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien % 91,7 eta baja guztien % 91,6 erregistratzen ditu.

Beste aldean, establezimendu handien (50 langile edo gehiago dituztenak) geruzan establezimendu guztien alden zein bajen % 0,1 dira, besterik ez. Aldiz, establezimenduetako pertsona enplegatuen alta guztien % 8,4 eta baja guztien % 7,8 suposatzen dute.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62